

herrera

Kontzertuak Kontadoresen

Kontadores gazte zentroak, hileko azken ostiraletan musika kontzertuak antolatzeari ekingo dio. Kontadores zentrura maketa bidaltzen duen talde orok izango du aukera kontzertutan parte hartzeko. Aurreko urtetan ere izan da kontzerturik Kontadoresen, eta beraz bada honelako lanetan esperientziarik, Duo Tamesis, Ipurtagiak eta Chinatown taldeak izan ziren hain zuzen. Interesaturik egonez gero, bidali zuen maketak Pasai San Pedro 13an dagoen Kontadores zentrura, edo 192-20110 posta kutxatilara. Maketaz gain, taldeari buruzko informazioa bidali.

Bestalde, martxorako antolatzen ari diren dantza jaialdian parte hartu nahi baduzu eta dantzarako gogoz bazabiltza, eman eza-gutzera zuen koreografiak Kontadores zentroan bertan.



Hileroko azken ostiraletan kontzertuak antolatzeari ekingo dio Kontadoreseko gazte zentroak.

martutene

Jubilatuen jaialdia izango da larunbatean, otsailak 22, gazteen eskutik. Eskola publikoko aretoan egingo da eta ekitaldia bi zatitan banatuko dute: eguerdiko 12.00etan meza izango da jubilatuentzat, eta 17.00etan berriz jaialdia. Sendotza eta denbora libreko taldeek antolatu dute zaharrentzat eguna, beraien monitore eta Martuteneko apaizarekin batera. Jaialdiaren erdi aldera mereindatxoa eta ardo goxoa izango dute, arratsaldea gustora pasatzeko.

eskean. Itxuraz Donostiako Udalean onetsi da Martutenen belar artifizialeko zelai bat egitea, Berion egingo den beste batekin batera. 100 milioi erabiliko dira helburu honetan, baina ez da garbi geratu bietatik zein egingo den aurrena.

Auzotar elkartearen urteko biltzarra ospatuko da otsailaren 24an Pedro Jose Irastorza eskolan. Lehenengo deia 19.30etan izango da eta bigarrena 20.00etan. Auzotar guztien partaidetza eskatzen da.

Futbol zelai bat beharrezkoa zela eta denbora asko daramagu martutenearrak

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)

ELI BETELU (TFNOA.: 467691)

BERRIEMALEAK

BEHAR DITUGU

PARTE ZAHARRA

IGELDO

ERDIALDEA

Irutxulo

IRUTXULOK hiru pertsona behar ditu **PARTE ZAHARRA, IGELDO eta ERDIALDEKO** korrespontsal moduan lan egiteko. Kazetaritza ikasketak kontutan hartuko dira. Interesik baduzu deitu **42.95.93** edo **42.68.07** telefono zenbakietara.

IRUTXULO, San Joan 14, 20003 DONOSTIA